# Xedapen Orokorrak

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**4827**

260/2010 DEKRETUA, urriaren 19koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzeko dena.

Europako Erkidegoko xedapenek ingurumena babesteko Estatuaren laguntzei buruz ezarritakoaren aplikazio zorrotza eginez, eta apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuari jarraiki (haren bidez arautzen baitira ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko baldintzak), azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bere ingurumen-politikan sartu du, EAEko industriaren produkzio-sistemetan eskuragarri dauden teknologia onenak sartzen errazteko ingurumen-arloko inbertsioak sustatzeko programak betearaztea. Programok diruz laguntzekoak dira eta, haien bidez bilatzen da lehiakortasuna hobetzea, ingurunetan eragiten diren inpaktuak gutxitzea, eta erabakigarritzat jotzea kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela dioen printzipioaren benetako aplikazioa eta ingurumen-arloko kostuak erabat barneratzea, betiere kostuok kutsatzen dutenek bere gain har ditzaten.

Orobat, Ingurumen Esparruko II. Programa onartzearekin batera, Administrazioak bere gain hartu zuen EAEko ekonomia iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko konpromisoa, beharrezkotzat jo baitzuen ingurumen-faktorea enpresen lehiakortasuna sustatzen duen elementu gisa aprobetxatzea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sustatzen duen ingurumen-estrategia berria EkoEuskadi Programan (2020) islatzen da, eta, datozen urteotan, klimaren eta energiaren gaineko politiken garapen integratua lortzeko bere gain hartu beharreko konpromisoak jasotzen ditu, helburu horixe baita Europako Erkidegoak ezarritakoa. Ildo horretan, batez ere indarrean dauden arauak gainditu ditzaten edo ekoberrikuntzan inbertsioak egin ditzaten emango zaizkie dirulaguntzak enpresei, betiere ingurumenarekiko errespetu handiagoa gordetzen duten ereduetara jotze aldera.

Dena den, nahi hori, edonola ere, Europako Erkidegoak ingurumena babesteko Estatuaren laguntzez ezarritako jarraibide berrien (2008/C82/01) edukira moldatu beharra dago. Izan ere, Europako Erkidego-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA**

**4827**

DECRETO 260/2010, de 19 de octubre, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

En aplicación estricta de lo dispuesto en las disposiciones comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente, y de conformidad con el Decreto 91/2002, de 23 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha incorporado a la política ambiental de los últimos años la ejecución de programas subvencionables encaminados a promover inversiones medioambientales en el sector industrial vasco que favorezcan la introducción de las mejores tecnologías disponibles en los sistemas de producción, mejorando la competitividad y reduciendo los impactos sobre los diferentes medios, manteniendo como aspectos críticos la aplicación efectiva del principio de que quien contamina paga y la plena internalización de los costes ambientales para que éstos recaigan sobre quienes contaminan.

Asimismo, con la aprobación del II Programa Marco Ambiental, la Administración asumió el compromiso de avanzar hacia la economía vasca sostenible, considerándose necesario aprovechar el factor medioambiental como elemento que propicie la competitividad de las empresas.

La nueva estrategia ambiental promovida por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, que encuentra su reflejo en el Programa Eco-Euskadi 2020, viene a incorporar los compromisos a asumir durante los años venideros con la finalidad de alcanzar el objetivo comunitario establecido de lograr un desarrollo integrado de las políticas climática y energética. En este sentido, la concesión de ayudas económicas se centrará en incentivar a las empresas a superar la normativa vigente o a realizar inversiones en materia de eco-innovación encaminadas a propiciar el comportamiento hacia modelos más respetuosos con el medio ambiente.

Sin embargo, tal voluntad debe de acomodarse, en cualquier caso, al contenido de las nuevas Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente (2008/C82/01) cuya aprobación por

ko erakundeek jarraibide horiek onartzearen ondorioz, indarrean dauden laguntza-araubideak egokitu behar dira. Beharrezkoa da, halaber, xedapen berri bat egitea, Europako Erkidegoko organoek ingurumena babesteko diru-laguntzez egin dituzten ebaluazioen ondorioak eta emaitzak jasotzeko.

Ildo horretan, Europako Batzordeak Ingurumen arloko VI. Programaren bidez, indarrean dauden legeen aplikazioa hobetzeko eskatzen die administrazioei, baita printzipio hauek betetzeko ere: «Kutsatzen duenak ordaindu egin behar du», ingurumen-kostuak erabat barneratu behar dira eta kutsadura sortzen den lekuan bertan zuzendu behar da. Horrenbestez, aurreikusitako diru-laguntzak ez dira justifikatuta geratzen xede bakarra ingurumen-arauetara egokitzea izanez gero; aitzitik, laguntzok pizgarri-modukoak izan behar dute eskatutako ingurumen-babesaren maila gainditzerako orduan.

Europako Erkidegoko jarraibide berrietan (2008/C82/01) ezartzen da laguntzek efektu sustatzailea izan behar dutela, hau da, enpresa onuradunek jokabidea aldatzen erraztu behar dutela, eta, horrela, laguntzarik jaso ezean lortuko litzatekeen ingurumenaren babes-maila handiagotu egingo da. Horrenbestez, laguntzok ez dute lortzen inoiz bilatzen den efektu sustatzailea enpresetan, enpresek proiektua hasi ondoren aurkezten dutenean laguntzaren eskaera.

Azken buruan, dekretu honen bidez, Europako Erkidegoko jarraibideek ezartzen dutenarekin bat, enpresa onuradunari aplikatzekoak zaizkion arauak gainditzen errazten dioten ingurumenaren babes-maila lortzera zuzendutako inbertsioak sustatu nahi dira. Horren barruan inbertsiookin zuzenean lotutako ikerketak sartzen dira, ekoberrikuntzako proiektuak bereziki kontuan hartuta, Europako Erkidegoak berrikuntza babesteko duen helburuari jarraiki. Ingurumenaren babesa nabarmen hobetzea helburu edo emaitza duen edozein jarduera berritzaile-mota da ekoberrikuntza.

Jarraibide berriek ezartzen dute, halaber, hondakinak sortzen dituztenei eta beste enpresa batzuek sortutako hondakinak kudeatzen edo birziklatzen dituzten enpresei eman ahalko zaizkiela Estatuaren laguntzak, betiere ingurumenaren gaineko ondorio positiboak bermatzen badira, ez bada «Kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioa saihesten, ezta bigarren mailako materialen merkatuen ohiko funtzionamendua desitxuratzen ere.

Jarraibide berrien arabera, badago orube kutsatuak xahutzeko laguntzak lortzeko aukera, ez dagoenean jakiterik zein den kutsaduraren erantzulea edo ez dagoenean horren kostua ordaintzera behartzerik.

las instituciones comunitarias conlleva la consiguiente obligación de adaptar los regímenes de ayuda en vigor, haciendo precisa la elaboración de una nueva disposición que haga suyas las conclusiones y los resultados de las evaluaciones que los órganos comunitarios han llevado a cabo sobre las ayudas económicas a favor del medio ambiente.

En este sentido, la Comisión Europea a través del VI Programa en Materia de Medio Ambiente, insta a las administraciones a mejorar la aplicación de la legislación vigente, así como a mantener el cumplimiento de los principios «Quién Contamina, Paga» (QCP), la plena internalización de los costes ambientales y la corrección de la contaminación en la fuente. Por lo tanto, las ayudas económicas previstas no resultan ya justificadas si tienen como objeto la simple adecuación a la normativa ambiental, sino que deben servir de incentivo a la hora de superar el nivel de protección ambiental exigido.

En las nuevas Directrices Comunitarias (2008/C82/01), se establece que la ayuda deberá tener un efecto incentivador, es decir, propiciar un cambio de comportamiento de las empresas beneficiarias de manera que redunden en niveles de protección del medio ambiente superiores a los que se alcanzarían sin las ayudas. Por lo tanto, las ayudas nunca tienen el efecto incentivador deseado sobre las empresas, si éstas presentan la solicitud de ayuda con posterioridad al inicio del proyecto.

En definitiva, el presente Decreto, en consonancia con lo que establecen las Directrices Comunitarias, pretende incentivar las inversiones encaminadas a alcanzar un nivel de protección del medio ambiente que permita a la empresa beneficiaria superar las normas que le sean de aplicación, incluyendo los estudios directamente vinculados a estas inversiones y otorgando una especial consideración a los proyectos de eco-innovación de conformidad con el objetivo comunitario de apoyar la innovación. Se entiende por eco-innovación, toda forma de actividad innovadora cuyo resultado u objetivo es una mejora significativa de la protección del medio ambiente.

Las nuevas Directrices establecen asimismo que se podrán conceder ayudas estatales a los productores de los residuos y a las empresas que gestionan o reciclan los residuos procedentes de otras empresas, siempre y cuando se garanticen los efectos positivos sobre el medio ambiente, no se eluda el principio QCP y no se distorsione el funcionamiento normal de los mercados de materiales secundarios.

De acuerdo con las nuevas Directrices, existe la posibilidad además de obtener ayudas para el saneamiento de solares contaminados cuando no se pueda identificar al responsable de la contaminación o no se le pueda obligar a correr con el coste.

Europako jarraibide berrietan aurreikusten da, orobat, kutsadura oso handia sortzen duten enpresak birkokatzeko laguntzak ematea, kutsadura hain kaltegarria izango ez den beste leku batera joan daitezen. Enpresa horiek non kokatzen diren oso garrantzitsua da, hala istripuak prebenitzeko, nola pertsonengan eta ingurumenean kutsaduraren ondorioak gutxitzeko.

Azkenik, jarraibide berrietan aurreikusten da laguntza-mota jakin batzuetan enpresa txiki eta ertainentzako prima bat ezartzea; egoera horietan, Estatuaren laguntzak banakako sustatzaileak izan baitaitezke kutsadurarekin lotutako kanpo-eragin negatiboen ondorioak arintzeko.

Dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko, prozedura bi erabiliko dira: arrunta eta erraztua.

Dekretu honek ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten enpresei diru-laguntzak emateko esparru orokorra ezarri nahi duenez gero, urteko deialdia egiten duten aginduen bidez ezarriko da aurrekontu-ekitaldi bakoitzean arautzen diren laguntzak eskatzeko epea. Orobat, eta besteak beste, agindu horiek jasoko dituzte erabilgarri dagoen aurrekontu-atala, emango diren diru-laguntzen gehienezko eta gutxieneko zenbatekoak, eta, hala badagokio, esleipena erabakitzeko lehenetsiko diren irizpideak ere bai (azken horiek, hala badagokio, dekretu honen 8. artikuluan jasotakoei gehituko zaizkie).

Azkenik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 45. artikuluan, herri-administrazioei eskatzen zaie teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak abian jartzera jotzeko, euren jarduera garatzeko eta eskumenak baliatzeko. Horrela, azken urteotan, EAEko Administrazioak zenbait ekimen garatu ditu baliabide elektroniko eta informatikoak ezartzeko eta zerbitzu publikoak emateko. Horretarako, abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua onartu du, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena. Etorkizunean, diru-laguntza hauek emateko prozeduraren arauketan, Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko obligazioa ezarri ahalko da. Kontua da, alde batetik, Administrazioaren barneko eraginkortasuna hobetzea laguntzak kudeatzerakoan, eta, beste alde batetik, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak erraztea.

Azaldutako guztia dela-eta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren

En las nuevas Directrices europeas, se contempla también la concesión de ayudas para la relocalización de empresas muy contaminantes y se trasladen así a un nuevo emplazamiento donde la contaminación tendrá un efecto menos dañino. La ubicación de estos establecimientos es de importancia primordial tanto para la prevención de accidentes, como para la limitación de sus consecuencias sobre las personas y el medio ambiente.

Por último, las nuevas Directrices prevén la concesión de una prima en determinados tipos de ayuda a las PYME; en tales situaciones, las ayudas estatales pueden ser incentivos individuales para contrarrestar los efectos de las externalidades negativas relacionadas con la contaminación.

Las subvenciones reguladas en este Decreto se adjudicarán mediante dos procedimientos de adjudicación: ordinario y simplificado.

Dado que el presente Decreto pretende el establecimiento de un marco general referido a la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente, serán las Órdenes de convocatoria anuales las que establezcan para cada ejercicio presupuestario la fijación del plazo de presentación de solicitudes para acogerse a las ayudas objeto de regulación, contemplando, asimismo y entre otros extremos, las concretas disponibilidades presupuestarias, los importes máximos y mínimos de las subvenciones que se otorgarán y, en su caso, criterios de adjudicación prioritarios que, en su caso, se sumarán a los incluidos en el artículo 8 de este Decreto.

Por último, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, insta a las Administraciones Públicas, en su artículo 45, a promover la incorporación de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas en el desarrollo de su actividad y en el ejercicio de sus competencias. Así, la Administración de la CAPV ha desarrollado en los últimos años distintas iniciativas dirigidas a la implantación de medios electrónicos, informáticos y en la prestación de servicios públicos, y a tales efectos ha aprobado el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, que regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en la prestación de servicios públicos. En el futuro, en la regulación del procedimiento de concesión de las presentes subvenciones, se podrá establecer la obligatoriedad de comunicarse con la Administración mediante medios electrónicos. Se trata, por un lado, de mejorar la eficiencia administrativa interna en la gestión de las ayudas y por otro, de facilitar a la ciudadanía sus relaciones con esta administración.

En virtud de todo lo expuesto, y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Re-

11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Batzordeari eta Ingurumenerako Aholku Kontseiluari entzunda, baita Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik eta Gobernu Kontseiluak 2010eko urriaren 19an eginiko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Dekretu honen xedea da, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei eman beharreko diru-laguntzen baldintzak arautzea. Diru-laguntzok Europar Batasunaren jarraibideetan (2008/C82/01) ingurumena babesteko Estatuaren laguntzei buruz jasotako baldintzetara eta mugetara egokituko dira. Gainera, prozedura erraztuaren bidez ebaluatzen diren eskabideen kasuan, 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen (EE) 800/2008 Erregelamenduan jasotako baldintzak eta mugak ere hartuko dira kontuan. Haren bidez, Itunaren 87. eta 88. artikuluak aplikatuta, merkatu erkidearekin bateragarriak diren laguntza-maila jakin batzuk ezartzen dira (kategorien araberako salbuespenen Erregelamendu orokorra) (EBAO, 2008ko abuztuaren 9ko L 214).

***2. artikulua.***– Onuradunak.

1.– Industri jardueretan, merkataritza jardueretan edo irabazteko asmoko zerbitzuak emateko jardueretan aritzen diren zuzenbide pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun, hala nola pertsona horiek osatutako elkarteak, baldin eta interes orokorrak eta pertsonon interesak ordezkatzen badituzte.

Toki erakundeak, organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak eta sektore publikoko bestelako erakundeak, alegia, fundazio edo partzuergo publikoak, ez dira onuradun izango.

2.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak ematea, eta, hala dagokionean, horiek ordaintzea, baldintzatuta egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten xede bererako diru-laguntzen esparruan, dirua itzultzeko edo zigorren bat ezartzeko espedientea hasirik egon eta, oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude.

3.– Ezin izango dituzte arau honetan aipatzen diren laguntzak eskuratu diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala duten erakundeek, edo legezko debekuren bat dutenek, tartean dela Euskal Herriko ingurumena

fundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, oídos la Comisión Ambiental y el Consejo Asesor Vasco, así como el Consejo Económico y Social Vasco, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 19 de octubre de 2010

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El objeto del presente Decreto es la regulación de la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destinadas a la protección del medio ambiente. Dichas subvenciones se ajustarán a las condiciones y límites contenidos en las Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales en favor del medio ambiente (2008/C82/01). Además, en el caso de las solicitudes evaluadas por el procedimiento simplificado, se tendrán también en cuenta las condiciones y límites contenidos en el Reglamento (CE) n.º 800/2008 de la Comisión de 6 de agosto de 2008 por el que se declaran determinadas categorías de ayuda compatibles con el mercado común en aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado (Reglamento general de exención por categorías) (DOUE L 214 de 9 de agosto de 2008).

***Artículo 2.***– Personas beneficiarias.

1.– Podrá ser beneficiaria de las subvenciones reguladas por este Decreto cualquier persona física o jurídica de naturaleza privada dedicada a actividades industriales, mercantiles o de prestación de servicios con fines lucrativos, así como las asociaciones constituidas por las mismas que representan los intereses generales y comunes.

Quedan fuera del ámbito del presente régimen de ayudas las Entidades Locales, Organismos Autónomos, Entes Públicos de derecho privado y Sociedades Públicas y aquellos otros entes que también forman parte del sector público tales como fundaciones o consorcios públicos.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– No podrán acceder a las subvenciones contempladas en esta norma las entidades que se encuentren incursas en alguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluidas

babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 117. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoa, baldin eta neurri zuzentzaile egokiak betearazten ez badituzte eta zehapena bete ez badute.

4.– Halaber, dekretu honetan arautako laguntzak eskuratzeko, pertsona eskatzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

***3. artikulua.***– Esleipena egiteko prozedurak eta zenbatzea.

1.– Ondorengo prozedurak erabiliko dira dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko:

a) Prozedura arrunta: norgehiagoka-prozedura eta banaketa proportzionala bidezko zenbatzea.

b) Prozedura erraztua: norgehiagoka ez den prozedura.

2.– Prozedura arruntaren bidez dekretu honen 5. artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 5. paragrafoetan jasotako diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira diruz.

Prozedura horretan gutxieneko puntuazioa lortzen edo gainditzen duten proiektuak baino ez dira diruz lagunduko; puntuazio hori urtero finkatuko da dekretu honen 11. artikuluan ezartzen den deialdi-aginduaren bidez.

Diru-laguntzaren zenbatzea egiteko hurrengoak hartuko dira kontuan: proiektuen diruz laguntzeko moduko kostuak, prozedura horretarako deialdian aurreikusten den aurrekontu-zuzkidura eta lortutako puntuazioa. Diru-laguntzaren proportzio handiagoa emango zaie balorazio hobea lortzen duten proiektuei.

Ez da diruz lagunduko zenbatze prozesuan deialdiaren aginduan ezarritako diru-laguntzako gutxieneko zenbatekora heltzen ez diren proiektuak.

3.– Prozedura erraztuan, dekretu honen 5. artikuluko 1., 2. eta 6. paragrafoetan ezarritako diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira diruz.

Prozedura horretan, onartutako eskabideen kopuruaren artean zatituko da ildo bakoitzerako eskuragarri dagoen aurrekontu-esleipena, eta ez da, inola ere, dekretu honek finkatutako inbertsioaren gehienezko ehunekoa gaindituko, ezta urteroko deialdi-aginduan ezarriko den laguntzaren gehienezko zenbatekoa ere. Gainera, 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen (EE) 800/2008 Erregelamenduan jasotako baldintzak eta mugak ere hartuko dira kontuan. Haren bidez, Itunaren 87. eta 88. artikuluak aplikatuta, merkatu erkidearekin bateragarriak diren laguntza-maila jakin batzuk ezartzen dira (kategorien araberako salbuespenen

las establecidas en el artículo 117 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en tanto en cuanto no ejecutasen las medidas correctoras pertinentes y no se hubiera satisfecho la sanción.

4.– Asimismo, para poder acceder a las ayudas reguladas en el presente Decreto las personas solicitantes deberán acreditar que se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y Seguridad Social.

***Artículo 3.***– Procedimientos de adjudicación y cuantificación.

1.– Las subvenciones reguladas en este Decreto se adjudicarán mediante los siguientes procedimientos:

a) Procedimiento ordinario: concurrencia competitiva y cuantificación por prorrateo.

b) Procedimiento simplificado: concurrencia no competitiva.

2.– En el procedimiento ordinario se subvencionarán las líneas subvencionales recogidas en los apartados 1, 2, 3, 4, y 5 del artículo 5 del presente Decreto.

En este procedimiento únicamente se subvencionarán aquéllos proyectos que alcancen o superen la puntuación mínima que anualmente se determinará en la Orden de convocatoria regulada en el artículo 11 del presente Decreto.

La cuantificación de la ayuda se determinará en función de los costes subvencionables de los proyectos, la dotación económica de la convocatoria para dicho procedimiento y la puntuación obtenida, logrando un mayor porcentaje de subvención los proyectos mejor valorados.

No se adjudicará subvención alguna a los proyectos que en el proceso de cuantificación no alcancen la cuantía mínima de subvención que establezca la Orden anual de convocatoria.

3.– En el procedimiento simplificado se subvencionarán las líneas subvencionales establecidas en los apartados 1, 2 y 6 del artículo 5 del presente Decreto.

En este procedimiento la asignación presupuestaria disponible para cada línea se dividirá entre el número de solicitudes admitidas, sin superarse en ningún caso el porcentaje máximo de inversión fijado por este Decreto ni el importe máximo de ayuda que se establecerá en la Orden anual de convocatoria. Además, se tendrán también en cuenta las condiciones y límites contenidos en el Reglamento (CE) n.º 800/2008 de la Comisión de 6 de agosto de 2008 por el que se declaran determinadas categorías de ayuda compatibles con el mercado común en aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado (Reglamento general

Erregelamendu orokorra) (EBAO, 2008ko abuztuaren 9ko L 214).

4.– Dekretu honen 5. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako diruz laguntzeko moduko lerroak bai prozedura arruntaren bitartez bai prozedura erraztuaren bitartez esleituko dira, eskatutako proiektuaren inbertsioaren zenbatekoaren arabera.

Urteroko deialdi aginduak prozedura arruntera jotzeko inbertsioaren zenbatekoa zehaztuko du, eta zenbateko horretara heltzen ez diren inbertsioak dagokion prozedura erraztura bideratu beharko dira.

***4. artikulua.***– Diru-laguntzaren xedea.

1.– Ez dira diruz lagunduko eskabidea aurkeztu aurretik hasitako inbertsioei buruzko proiektuak.

2.– Diruz lagundutako inbertsioak betearazteko epea diruz lagundutako proiektuan zehaztutakoa izango da, eta gehienez bi urtekoa izango da diru-laguntzaren emakida jakinarazi zenetik.

Diruz lagunduko dira, berriz, enpresa onuradunari aplikatzekoak zaizkion arauak gainditzeko bidea ematen dion ingurumenaren babes-maila lortzera zuzentzen diren inbertsioak. Dena dela, diru-laguntzaren xede den proiektuaren baldintza espezifikoekin lotutako eta behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta, pertsona onuradunak, ezarritako betearazpen epea amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduketa egiteko hasieran xedatutako epea luzatzeko eskatu ahal izango du. Epea ezingo da luzatu urte bi baino gehiago, hasieran ezarritako epetik, eta luzapen-eskaera hori Ingurumeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez onartu beharko da, organo kudeatzaileak aldeko txostena egin ondoren.

***5. artikulua.***– Diruz laguntzeko moduko lerroak.

1.– Enpresei eman ahal izango zaizkie laguntzak inbertsio jakin batzuk sustatzeko, alegia, enpresa onuradunak aplikatzekoak zaizkion arauak gainditu ahal izateko behar den ingurumenaren babes-maila lortzera edo aplikatu beharreko araurik ezean ingurumenaren babesa hobetzera bideratuta dauden horiek.

2.– Enpresei eman ahal izango zaizkie laguntzak, indarrean dauden arauak gainditzera zuzendutako inbertsioei lotutako ikerketak egiteko. Prestaketa-azterlanaren emaitzen ondorioz, azkenean ez bada azterlanaren xedea den inbertsioa egiten, orduan ere aplikatuko da hori.

3.– Hondakinak kudeatzeko inbertsioa diruz lagundu ahalko da, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Inbertsioak, beste enpresa batzuek («Kutsatzaileak») sortutako kutsadura gutxitzeko izanik, lagun-

de exención por categorías) (DOUE L 214 de 9 de agosto de 2008).

4.– Las subvenciones contempladas en las líneas previstas en los apartados 1 y 2 del artículo 5 del presente Decreto se adjudicarán, en función del importe de inversión del proyecto para el que se soliciten, bien mediante un procedimiento ordinario o bien mediante un procedimiento simplificado.

La Orden de convocatoria anual fijará el importe de las inversiones a partir del cual deberá concurrirse al procedimiento ordinario, debiendo concurrir al procedimiento simplificado correspondiente las inversiones que no alcancen dicha cuantía.

***Artículo 4.***– Condiciones generales.

1.– No serán objeto de subvención los proyectos relativos a inversiones iniciadas con anterioridad a la fecha de presentación de las solicitudes.

2.– El plazo para la ejecución de las inversiones subvencionadas será el que se determine en el proyecto objeto de subvención, que no podrá exceder el plazo máximo de 2 años desde la notificación de la concesión de la subvención.

No obstante, por razones debidamente justificadas relacionadas con las condiciones específicas del proyecto objeto de subvención, la persona beneficiaria podrá solicitar, con anterioridad al vencimiento del plazo de ejecución establecido, una prórroga del plazo inicialmente previsto para la realización de la actuación subvencionada. La ampliación del plazo no podrá exceder de 2 años respecto a lo inicialmente establecido, debiendo ser dicha solicitud de ampliación aprobada por Resolución de la Viceconsejera de Medio Ambiente, previo informe favorable del órgano gestor.

***Artículo 5.***– Líneas subvencionales.

1.– Se podrán conceder ayudas destinadas a incentivar las inversiones encaminadas a alcanzar un nivel de protección del medio ambiente que permita a la empresa beneficiaria superar las normas que le sean de aplicación o mejorar la protección del medio ambiente en ausencia de normas aplicables.

2.– Se podrán conceder ayudas a empresas para la realización de estudios vinculados a las inversiones destinadas a superar las normas vigentes. Ello también se aplicará en los casos en que, como consecuencia de las conclusiones de un estudio preparatorio, no se lleve a cabo finalmente la inversión objeto del estudio.

3.– Se podrán conceder ayudas a la inversión para la gestión de residuos que cumplan todas las condiciones siguientes:

a) La inversión está destinada a reducir la contaminación generada por otras empresas (los «contami-

tzaren onuradunak sortutako kutsadura kanpo uzten badu.

b) Laguntzaren bidez kutsatzaileak ez badira zeharka salbuetsita geratzen Europako Erkidegoko legeen arabera jasan beharko lituzketen zametatik, ezta kutsatzaileentzat ohiko enpresa-kostutzat jo beharko liratekeen zametatik ere.

c) Inbertsioak «puntako teknologia» gainditzen badu edo teknologia konbentzionalak era berritzailez erabiltzen baditu.

d) Laguntzarik egon ezean, tratatu beharreko materialak ingurumena gutxiago errespetatzen duten prozeduren arabera eliminatuko edo tratatuko balira.

e) Inbertsioaren ondorio bakarra ez bada ondoren birziklatu beharreko materialen eskaera handitzea, material haien bilketa handitu gabe.

4.– Enpresei eman ahal izango zaizkie laguntzak, orube kutsatuak xahutzeko, ez dagoenean jakiterik zein den kutsaduraren erantzulea edo ez dagoenean kutsaduraren kostua ordaintzera behartzerik.

5.– Diru-laguntzak eman ahal izango dira kutsadura handia sortzen duten enpresak kutsadurak kalte gutxiago egiten duen beste leku batera eramateko, betiere ere lekualdaketa ingurumena babesteko arrazoiengatik egiten bada eta horrela agintzen badu ebazpen administratibo edo judizial batek edo horrela adosten bada enpresaren eta aginte publiko eskudunaren artean. Gainera, enpresak kokatzen den kokaleku berrian aplikatzekoak diren ingurumenaren gaineko araurik zorrotzenak bete beharko ditu.

6.– Enpresa txiki eta ertainek egindako inbertsioak diruz lagundu ahal izango dira, ingurumenaren gaineko aholku-zerbitzuak ematekoak badira, 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen (EE) 800/2008 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera; horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarri deklaratzen dira, Itunaren 87. eta 88. artikuluak aplikatzearen ondorioz (kategorien araberako salbuespenen erregelamendu orokorra). (EBAO, 2008ko abuztuaren 9ko L 214).

***6. artikulua.***– Diruz laguntzeko gastuak.

1.– Ingurumen-helburuak lortzeko behar den kostu gehigarria baino ez da diruz lagunduko, eta inbertsioaren gastu orokorrak kanpo geratuko dira, ingurumena babestearekin zerikusia ez dutenean.

Horrela, hauek izango dira lagunduko diren kostuak:

– Enpresa onuradunak aplikatzekoak zaizkion arauak gainditu ahal izateko behar den ingurumenaren babes-maila lortzera edo aplikatu beharreko araurik ezean ingurumenaren babesa hobetzera bideratutako inbertsioen kasuan, aintzakotzat hartzen diren

nadores») y no abarca la contaminación generada por la persona beneficiaria de la ayuda.

b) La ayuda no libera indirectamente a los contaminadores de cargas que deberían soportar con arreglo a la legislación comunitaria ni de cargas que se deberían considerar costes empresariales normales para los contaminadores.

c) La inversión va más allá de la «tecnología punta» o utiliza tecnologías convencionales de forma innovadora.

d) De no existir la ayuda, los materiales objeto de tratamiento serían eliminados o tratados según procedimientos menos respetuosos del medio ambiente.

e) La inversión no tiene como único efecto aumentar la demanda de los materiales objeto de reciclaje posterior sin aumentar la recogida de tales materiales.

4.– Se podrán conceder ayudas a las empresas para el saneamiento de solares contaminados cuando no se pueda identificar al responsable de la contaminación o no se le pueda obligar a sufragar el coste.

5.– Se podrán también conceder ayudas para la relocalización de empresas muy contaminantes que se trasladen a un nuevo emplazamiento donde la contaminación tenga un efecto menos dañino, siempre y cuando dicho traslado esté motivado por razones de protección del medio ambiente y así lo ordene una decisión administrativa o judicial o se acuerde entre la empresa y la autoridad pública competente. Además, la empresa deberá cumplir las normas ambientales más estrictas aplicables en el nuevo emplazamiento en que se ubique.

6.– Se podrán conceder ayudas para inversiones que se destinen a servicios de asesoramiento en materia de medio ambiente cuando las mismas sean abordadas por las PYME, de conformidad con el Reglamento (CE) n.º 800/2008 de la Comisión de 6 de agosto de 2008 por el que se declaran determinadas categorías de ayuda compatibles con el mercado común en aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado (Reglamento general de exención por categorías) (DOUE L 214 de 9 de agosto de 2008).

***Artículo 6.***– Costes subvencionables.

1.– Los costes subvencionables se limitarán estrictamente al coste adicional necesario para alcanzar los objetivos medioambientales, quedando excluidos los gastos generales de inversión que no estén relacionados con la protección del medio ambiente.

Así, se entenderán costes subvencionables los siguientes:

– En las inversiones encaminadas a alcanzar un nivel de protección del medio ambiente que permita a la empresa beneficiaria superar las normas que le sean de aplicación o mejorar la protección del medio ambiente en ausencia de normas aplicables, las inver-

inbertsioak hauexek dira: lurretan egiten direnak, ingurumeneko helburuak betetzeko behar-beharrezkoak badira; eraikin, instalazio edo ekipo-ondasunetan egiten direnak, haien helburua kutsadura eta beste eragin kaltegarri batzuk gutxitu edo kentzea edo ekoizpen-metodoak ingurumena babesteko egokitzea bada.

– Ingurumen-arloko ikerketa eta aholkularitzalanei dagokienez, kanpoko entitateek ematen dituzten zerbitzuen kostuak.

– Hondakinak kudeatzeko laguntzei dagokienez, hondakinak kudeatzea hartzen duen inbertsioa egiteko, sortzen diren kostu gehigarriak, erreferentziainbertsioarekin alderatuta, hau da, hondakinak kudeatu gabeko produkzio konbentzionalaren kostuekin alderatuta. Aipatutako erreferentzia-inbertsioaren kostua kostu hautagarritik kendu beharko da.

– Orube kutsatuak xahutzeko laguntzei dagokienez, xahuketa-lanen kostuak ken lurraren balioaren hazkundea.

– Enpresak birkokatzeko laguntzei dagokienez, enpresak lekualdaketaren ondorioz lor dezakeen edozein abantaila islatu behar da kalkulua egiterakoan.

2.– Edonola ere, diruz lagun daitezkeen kostuen zenbateko garbia hemendik kalkulatuko dira: produzitzeko gaitasuna handituko balitz lortuko liratekeen abantailetatik, inbertsioaren lehenengo bost urteetan sortzen diren kostuen aurrezkietatik eta denboraldi berean izandako produkzio gehigarrietatik.

3.– Baldin eta erakunde eskatzaileak aurkeztutako inbertsio garbiaren datuaren eta Balorazio Epaimahaiak kalkulatutako inbertsio garbiaren datuaren –dekretu honen 13. artikuluan xedatutakoa- artean, behin diru-laguntza eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, urteko deialdiaren aginduan ezarriko den ehunekoa baino alde handiagoa egonez gero, epaimahai horrek jakinaraziko dio erakunde eskatzaileari egindako inbertsio garbiaren kalkuluaren emaitza, baita hori ezartzeko kontuan hartutako datuak ere; hamar eguneko epea emango zaio, hala balegokio, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan.

Azkenik, Balorazio Epaimahaiak zehaztuko ditu diruz lagun daitezkeen kostuak.

***7. artikulua.***– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa deialdiaren aginduan ezartzen den aurrekontu-zuzkidurara egokituko da.

2.– Ematen diren diru-laguntzek ezin izango dituzte, inola ere, dekretu honen eranskinean azaldutako portzentajeak gainditu, esleipen-prozedura bakoitzerako eta proiektu-mota bakoitzerako. Urteko

siones consideradas serán las realizadas en terrenos cuando sean estrictamente necesarias para cumplir los objetivos medioambientales y las referidas a edificios, instalaciones y bienes de equipo cuyo fin sea reducir o eliminar la contaminación y otros efectos nocivos, o adaptar los métodos de producción para proteger el medio ambiente.

– En estudios y asesoramientos medioambientales, los costes de servicios prestados por entidades externas.

– En las ayudas para la gestión de residuos, los costes de inversión adicionales necesarios para la realización de una inversión que contemple la gestión de los residuos, en comparación con la inversión de referencia, es decir, los costes de una producción convencional de la misma capacidad sin gestión de residuos. El coste de tal inversión de referencia deberá deducirse del coste elegible.

– En las ayudas para el saneamiento de solares contaminados, los costes de las tareas de saneamiento menos el aumento de valor del terreno.

– En el caso de las ayudas para la relocalización de empresas, el calculo deberá reflejar cualquier ventaja que la empresa pueda obtener debido a su relocalización.

2.– En cualquier caso, los costes subvencionables se calcularán netos de las ventajas obtenidas de un eventual incremento de la capacidad productiva, de los ahorros de costes generados durante los cinco primeros años de vida de la inversión y de las producciones accesorias adicionales durante el mismo periodo de tiempo.

3.– En caso de que entre el dato de inversión neta aportado por la entidad solicitante y el dato de inversión neta calculado por el Tribunal de Valoración, previsto en el artículo 13 del presente Decreto, tras el análisis de la documentación que se presenta junto con la solicitud de subvención, existiera una diferencia superior a un porcentaje que se determinará en la Orden de convocatoria anual, dicho Tribunal comunicará a la entidad solicitante el resultado del cálculo de la inversión neta realizado, así como los datos tenidos en cuenta para su determinación, concediéndole un plazo de 10 días para que presente en su caso, las alegaciones que estime oportunas.

La determinación definitiva de los costes subvencionables corresponderá, en todo caso, al Tribunal de Valoración.

***Artículo 7.***– Cuantía de la subvención.

1.– La cuantía de la subvención se ajustará a la dotación presupuestaria establecida en la consecuente Orden de convocatoria.

2.– Las subvenciones a otorgar en ningún caso podrán superar los porcentajes indicados en el anexo del presente Decreto para cada procedimiento de concesión y para cada tipo de proyecto. Deberán también

deialdi aginduan aipatutako gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak ere errespetatu beharko dituzte.

***8. artikulua.***– Esleitzeko irizpideak.

Prozedura arruntaren barruan diru-laguntzak emateko, besteak beste, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Industria-jarduerak ingurumenean duen eragina.

b) Aurreikusitako inbertsioak ingurumenari ekarriko dion hobekuntza eta inbertsioa ekologiaren aldetik eraginkorra den.

c) Inbertsioak baso-hegaztiei babesteari buruzko Kontseiluaren 1979ko apirilaren 2ko 79/409/EEE Direktiban eta Habitat Naturalak eta Flora nahiz Fauna Basatiak Zaintzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzean 21eko 92/43/EEE Direktibetan aipatzen diren zona sentikorretan egingo diren, baita natura babestearen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera babestutako naturguneetan ere.

d) Proiektua ekologiaren aldetik berritzailea izatea. Irizpide horretan, proiektua zein graduraino den berritzailea eta transferigarria hartuko da kontuan. Ingurumenaren babesa nabarmen hobetzea helburu edo emaitza duen edozein jarduera berritzaile-mota jotzen da jarduera ekoberritzailetzat. Ekoberrikuntzak hauek guztiak hartzen ditu: fabrikatzeko prozesu berriak, produktu edo zerbitzu berriak, eta enpresa- edo kudeaketa-metodo berriak, haiek erabiltzea edo betearazteak ingurumenarekiko arriskuak gutxitu baditzake funtsean, baliabideak erabiltzeak dakartzan kutsadura eta bestelako eragin negatiboak, haiekin lotutako jardueren bizi-zikloan zehar. Zehazki, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuak aipatzen dituen teknologia guztiak berritzailetzat joko dira, justifikazio gehiago egin beharrik gabe; haren bidez, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda arautzen baita.

e) Proiektuaren koherentzia eta kalitatea.

f) Pertsona juridiko eskatzailea enpresa txikia edo ertaina izatea, hain zuzen ere, mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak definitzeari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen Gomendioan ezarritakoaren arabera.

g) Inbertsioa egiten den lekuan ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiri baliodunak dutela egiaztatzea (ingurumen-kudeaketarako sistemak, IKS).

***9. artikulua.***– Eskabideak eta agiriak.

1.– Hauek dira eskabideak aurkezteko lekuak: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Sailburuordetza (Donostia kalea, 1; Vitoria-Gasteiz); sail horretako lurralde-bulegoak; Zuzenean zerbitzuko herritarrari laguntzeko guneak, edo Herri

respetar los importes máximos y mínimos señalados en la Orden anual de convocatoria.

***Artículo 8.***– Criterios de adjudicación.

En el otorgamiento de las subvenciones dentro del procedimiento ordinario, se tendrán en cuenta, entre otros, los siguientes criterios de adjudicación:

a) Incidencia de la actividad industrial sobre el medio ambiente.

b) La mejora medioambiental que suponga la inversión prevista y el carácter ecoeficiente de la inversión.

c) La realización de inversiones que afecten a las zonas sensibles a las que se refieren la Directiva 79/409/CEE del Consejo, de 2 de abril de 1979, relativa a la conservación de las aves silvestres y la Directiva 92/43/CEE, del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la flora y fauna silvestres; así como a los espacios naturales protegidos en virtud de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza.

d) El carácter ecoinnovador del proyecto. En este criterio se tomará en cuenta el grado de innovación y transferibilidad del mismo. Ecoinnovadora es toda forma de actividad innovadora cuyo resultado u objetivo es una mejora significativa de la protección del medio ambiente. La ecoinnovación incluye los nuevos procesos de fabricación, los nuevos productos o servicios, y los nuevos métodos empresariales o de gestión, cuya utilización o ejecución pueda prevenir o reducir sustancialmente los riesgos para el medio ambiente, la contaminación u otros impactos negativos del uso de recursos, a lo largo del ciclo de vida de las actividades a ellos vinculadas. En concreto, se considerarán innovadoras, sin necesidad de justificación adicional, todas aquellas tecnologías a que se refiere el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, por el que se establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

e) La coherencia y calidad del proyecto.

f) La acreditación, por parte de las personas jurídicas solicitantes, de su condición de pequeña o mediana empresa de conformidad con lo establecido en la Recomendación de la Comisión de 6 de mayo de 2003 sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas.

g) La acreditación de estar en disposición de certificados válidos de sistemas de gestión medioambiental (SGMA) en el emplazamiento donde se ejecuta la inversión.

***Artículo 9.***– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes habrán de presentarse ante la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, sita en Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián n.º 1; en los Servicios Territoriales de

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein.

2.– Laguntza-eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

